

## KOMIKIA

## Beste generoak

## AZKEN GARAIPENA

ZALDUA, Iban (idazlea).  
RIBAS, Julen (marrazkilaria).  
Ikastolen Elkarte, 2011.  
12 euro.

Asun AGIRIANO

Gai konplexua da gazteen irakurzaletasunarena. Liburuek zergatik motibatzen dituzte gutxiago gazteak? Zer gomendatu eta zein estrategia jarraitu irakurle nerabeekin? Liburu guztien artean, zein da egokia edota gomendagarria irakurtzeko ohitura jaisten den adin-tarte horretan?

Gazteak, beste edozein irakurlek bezala, kalitatezko liburuak nahi izaten ditu, eta puntu hau ere korapilatsua gertatzen da, ezen zer ulertzen dugu kalitateaz ari garela? Besterik gabe, asmatzeko modu bat gazteen gustu eta interesetatik gertu egon daitezkeen istorioak helaraztea izan daiteke.

Aukeraketarekin asmatzeko, bitartekari lanak egiten ditugunok ikasi behar dugu, batetik, gai edo generoei dagokienez, liburu mota ezberdinak eskaintzen, euren bizipen pertsonaletatik gertu dauden istorioak bilatzen. Eta, bestetik, literatura aldetik, bizkorgarriak diren obrak eskura jartzen, hazibidean dauden irakurzaletzat erronka edo desafioa izango direnak.

Irakurketa berbabide dugunean, itxura batean, genero guztiek dute balio bera. Alabaina, eguneroko praktikan, narrazioak izaten du garrantzirik handiena, nahiz eta komikiak eta aldizkariak ere badiren, irakurketara hurbiltzeko zeresan handia izan dezaketenak eta gai ugari jorratzen dituztenak (musika, zinea, zientzia-fikzioa, abentura, umorea...). Ate guztiek eraman gaitzakete irakurketaren mundura.

Euskal liburugintzan, nabarmen ahul dagoen generoa dugu komikiarena. Euskal komikia badela baieztatzea, urtean pare bat edo hiru ale argitaratzen direnean, larregi esatea litzateke. Horregatik egiatik gertuago ginateteke esango bagenu komikiak egin



nahi dituzten euskal komikigileak badirela, baina apenas dutela aukerarik euren lanak Euskal Herrian argitaratzeko.

Horregatik, pozgarria da Ikastolen Elkartearen eskutik dagoen konpromisoa sikiera urtean komiki-ale pare bat kaleratzeko. Horregatik, pozgarria da "Xabirot" euskarazko komiki-aldizkariak urtean hirutan irautea. Eta hori, hain zuzen ere, euskal liburugintzaren sustatzaile nagusiek komikiari begiratzen ez dioten bitartean...

Sarrera luze honek aukera ematen digu gazteentzako, eta baita helduentzako ere, ezin aproposagoa den komiki berri bat aurkezteko, eskarmentu zabala duen Iban Zaldúa idazleak sortutako kontakizun bati kasu egiteko. Zientzia-fikziozko istorio beltz bikaina sortu dute elkarlanean aipatutako idazleak eta Julen Ribas marrazkilaria arrasatearrak.

Asmatu eta berrasmatu du Iban Zalduek Philip K. Dick zientzia-fikziozko egile eza-

gunaren eragina duen kontakizun hau, non irudikatzen den naziek Bigarren Mundu Gerra irabazi balute etorriko zitzaien gizartea. Gidoi lana sendoa eta landua dugu, egileak atmosfera berezi eta paisaia berriak asmatzeko duen trebeziari esker. Harrigarria da pertsonaiek hartzen duten pisua eta sinesgarritasuna. Izan ere, istorioko emakumeak zein gizonak oso gertukoak egingo zaizkigu eta 2052. urtean kokatuta egon arren, oso etorkizun posiblea iruditzen zaigu aurkeztutako panorama. Irakurleak ez du oztoporik Sigrid tenientearen arazoak ulertzeko, idazleak dagoeneko bere liburuetan berezko dituen harreman pertsonal gatazkatsuen osagai interesgarria erabiltzen duenean. Eguneroko bizitzan aurrera egitea amets duten epikarik gabeko heroi galduek, euren errealmogatik, egonezina sortzen dute. Kontakizunak erakusten digu gidoiaren atzean idazle sena duen egile bat dugula, Zalduek narratziarako berebiziko indarra duela, komiki-hizkuntza ere ondo menperatzen duela erakusten digun moduan.

Ribasek egin duen lana mundiala da; istorioan murgildu, eta marrazkien bitartez, komikiari erritmo bizia ematea lortu du, etorkizuneko giroa xehetasun handiz islatu du. "Linea argia" delakoan koka daitezkeen estiloan izugarri ona den lan bat erakusten digu. Haurren mundutik gertuago zeuden Numenak istorio haien aldean, haratago joan da Ribas, garatuagoa den marrazki lan indartsua eskaintzen baitigu oraingo honetan Ribasek.

Komikiaren oraina baikorragoa da "Azken garaipena" bezalako liburuekin. Bi egileek, Ribasek eta Zalduek, ziurtatu dute etorkizuna egon egon daitekeela, bien talentuak elkartu eta adostasuna eta lankidetzaren bikain erakutsi baitute. Komiki borobila da zentzu guztietan, edizioan ere bai, luxuzkoa den aldetik. Bien lanari esker, irakurlea harapatu egingo dute, gogoan iltzatuta geratuko zaion komikia delako.

## BERE SORTERRIAN

## Joxemartin Apalategi antropologoa, omendua

Eusko Ikaskuntzak jardunaldi bat antolatu du gaur Ataunen, Joxemartin Apalategi Begiristain (1949-2006) antropologo eta antropologoaren maisu adi-tuari buruz aritzeko. Iker-tzaile, aditu eta irakasle gisa gizarte eta kultura antropologiari egindako ekarpena aztertzeaz gain, 2007ko otsailean Eusko Ikaskuntzak EHU-n egin zion omenaldi-jardunaldian azaldutakoak biltzen dituen liburu bat aurkeztuko da.

## BAIONA

## Euskaltzaindiak Chahori buruzko jardunaldiak antolatu ditu

Agosti Chahoren jaiotzearen bigarren mendeurrena da aurten, eta horren kariatara, eta Chahori omenaldia eginez, Euskaltzaindiaren Literatur Ikerketa batzordeak jardunaldiak antolatuko ditu datorren abenduaren 16rako, Baionako Iker zentroan: "Agosti Chaho eta erromantizismoa Euskal herrian". Goizeko hamarretatik arratsaldeko seiak arte aldizkatuz joanen dira hainbat hizlari. Beñat Oihartzabalen hitzaldiak irekiko ditu jardunaldiak, eta "Chaho eta euskal gramatika" gaia jorratuko du bertan.



**TRANSTRÖMER, PROFETA EN SU TIERRA.** El poeta sueco Tomas Tranströmer será hoy profeta en su tierra durante la ceremonia de entrega de los premios Nobel, cuando reciba de manos del rey Carlos Gustavo el galardón de Literatura. Traducido a más de 50 idiomas, sufrió en 1990 un ataque cerebral que le causó problemas en el habla y dificultades de movimiento, por eso este año no pudo pronunciar la tradicional lectura del Nobel de Literatura. GARA

## Un total de 44.000 bonos cultura se pondrán a la venta a partir del lunes

GARA | BILBO

El Gobierno de Lakua pondrá a la venta a partir del próximo lunes en BBK, Kutxa y Caja Vital un total de 44.000 bonos cultura con una inversión de 660.000 euros, un 32,20 por ciento menos que el año pasado. Como en ediciones anteriores, el bono tendrá un valor de 40 euros para la compra de productos culturales, de los que 25 los aportará el consumidor y los 15 restantes el Gobierno.

Los bonos se podrán adquirir en los cajeros multiservicio de BBK y a través de internet en Gipuzkoa (www.kutxa.net) y en Araba

(www.cajavital.es) entre el 12 de diciembre y el 5 de enero, y se podrán utilizar en los 364 establecimientos adheridos a la campaña desde el próximo lunes y hasta el 20 de enero.

Los talones culturales deberán gastarse en su totalidad en la tienda elegida para la adquisición de libros, música, cine, espectáculos en vivo y museos. Según el vicepresidente de Cultura, Antonio Rivera, supone una aportación de la cultura a la economía vasca, cifrada en el 3 por ciento del PIB y un mecanismo que «beneficia al ciudadano y al conjunto de la cadena de valor» de la producción artística.